

## Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoari buruzko master berria hasi da

2010/09/28

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, Produktu eta zerbitzuen diseinu estrategikoari buruzko master berriko ikasleen lehenengo promozioa hasi du. Masterraren koordinatzaileak, Dani Justelek, eta koordinatzaile akademikoak, Jon Altunak, programa akademikoa aurkeztu die matrikulatu diren 14 ikasleei.

Masterrak hiru ezagutza arlo jasotzen ditu: diseinu estrategikoa, pertsonetan zentratutako diseinua eta iraunkortasuna. Ikaskuntza enprekin lankidetzan egingo diren proiektu eta workshop trinkoen bidez egingo da, honez gain, adituen hitzaldietan eta nazioarteko konferentzietan parte hartuko dute ikasleek.

